

Arratiako Emakumeen I. Mendi Martxea Gorbealara martiaren 13an

11. orrialdea



Nik, Ameriketako musikea

Urtailaren 29an aurkeztu zan Nik Dimako taldea eta kontzertu bakarra jo arren, badaukaz bete 6 kontzertu hitzartuta. Dima eta Igorreko gazte honeek *khaos* izeneko musika estilo barria egiten dabe. Eurak sortutako kantak eskeintzen dabez euren kontzertuetan. Hilaren 26an, Nik-en musikea entzuteko aukerea izango da Dimako Poxpolu Rocken. **12. orrialdea**

Fasioren Mendea lana doban eroango dabe etxera igorretarrak

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

137

2011ko zezeilaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Euskal Herrian gitxi ligetan dala dino topikoak, baina Pfizerren ohitura sexualen inguruko txostenak dino euskaldunok pozik gagozala gure sexu hartu-emonakaz.

Euskaldunok pozik gagoz geure sexu hartu-emonakaz

Eta, batez beste, estaduan baino denpora gehiago emoten deusagula jardun horri. Ez dogula gitxiago egiten be pentsetan dabe Mari Luz Esteban antropologoak edo Saioa Hernandez sexologoak.

Dana dala hor dago topikoak eta topikoak ez dira hutsetik sortzean. Sasoi baten natalidadea kontroletako sexualidadea erreguleto moduak dagozala azpian uste dabe aditu batzuek. Sexualidadea ukatzeko modu honeek guztiz desagertu ez badira be, amodio

erromantikoaren eredu, bikotea ardatz dauana, indartzen doa.

Herralde anglosajoietao gi-zarte eredu oinarritzkoa da bikotea. "Bikotearen inguruan dago antolatuta gizarte osoa. Hemen, barriz, daukagun senidetason sistema eta lagunen arteko hartu-emonakaz, bikotea ez da oinarritzkoa" dino Mari Luz Esteban antropologoak. Dana dala, globalizazioaren ondorioz eta film, eta telesailen laguntzaz, gero eta gehiago dabil sartzean amodio erromantikoaren eredu

eta eredu honek adituen ustez, familia eta genero eredu kaltegarriak dakar beragaz.

San Balendin egunean artea bat neurtu eben Zeanurin eta nahiz eta denda batzuetako erakuslehoetan amodio erromantikoaren ikurrak ageri, ez dirudi arratiarron bizitzan lar sartu danik, momentuz, lorak eta txokolateak oparitzeko ohiturea.

Indar kontrajarri horreen artean mobiduten da euskal herritarren sexualidadea eta gizartearen eraketea. **8. eta 9. orrialdeak**



Arratiarron ohituretan ez dago sanbalendinetan lorak oparitzea.

ARRATIA

Indarkeria sexistearen biktimai arreta hobetuteko

Arratiako Udalen Mankomunitateak indarkeria sexistearen biktimai arreta hobetuteko asmoz, Emakunderi diru laguntzea eskatu deutso. Indarkeria sexistearen biktimen arreta Mankomunitadeko gizarte zerbitzuak daroa.

Laguntzea jaso ezker, lehenengo diagnostikoa egingo da eta hau egindakoan, arreta eta koordinazio protokoloa egingo dabe. **6. orrialdea**



ARRATIA

Gazte Planaren diagnostia

Eusko Jurlaritzak ez eban laguntzarik emon igaz Gazte Planerako eta BFAK bulegoa zabalik mantenduteko bakarrik eta ez ekintzarik egiteko. Egoera honetan Arratiako GIBek "geldialdi bat eta hausnarketea" egiteko aprobezauko daua dino Arantza Atutxa Gorbeialdeko arduradunak. Planaren diagnostia egingo dabe eta honek hurrengo urteetarako lehentasunak markauko ditu. **5 orrialdea**

ARRATIA

Euskerazko hedabideen editoriala

Eusko Jurlaritzako 2008ko ikerketa baten arabera 400.000tik gora biztanlek konsumiduten ditu euskerazko hedabideak. Erakundeak eta partidu politikoak, halanda be, sostengu ekonomiko urria emoten deutsee eta krisia dala-eta euskerazko hedabideen egoera larritu egin da. Euskerazko hedabide ez publikoen sektorean 600 langiletik gora dagoz. **7. orrialdea**

ARRATIA
ZERBITZU INMOBILIARIOAK
Diman etxe barriak



Dima erdian.

Leku pribilegiatuan. Oso eguzkitsua.

2011ko urtean zehar hasiko gara eraikitzen.

2 eta 3 gelako etxebizitzak bainugela bigaz.

Garajeak eta trastelekuak.

Hurbildu zaitetz Igorreko Arratia Inmobiliariara eta informazioa emongo deusugu.

GEURE BERBATEGIE

'Geure Berbategie'

JUANTXU REKALDE
ANGEL LARREA

ZEZEILEKO KONTUAK

Zezeila da urtean zehar dagoan hilerik laburrena. Zergaitik? Lehengo, itargi-egutegia erabilten zalako eta horren arabera urtearen amaiera zezeilean izaten zan; esaterako, Erroma klasikoan Julio Zesarrek eguzki-egutegia sartu arte urtearen azken egunak zezeilean izaten ziran.

Zezeilak beste izen honeek be hartzean ditu Arratian: **ze-**

zaila, zezeila berbearen aldakia da; **hiletzikerra**, 28 edo 29 eguneko hilea dalako; **otzaila**, neguko hotzagaz lotuta edo, beharbada, otsoakaz; eta **katuila**, katu-emeen **agi** edo **agiri** aldia dalako. Ez da azken hau emonkortasunagaz lotuta dagoan bakarria hile honetan: "San Blas ta Santa Ageda feriak, mutil-neskatxen ezaupideak" Azkuek jaso eban esakereak argi ixten deusku zelan egiten ziran mutil-gazte eta neskatxien arteko bikoteak jaiegun bi hareetan. Gogoratu San Blasen eta Santa Agedaren ermitak Di-

man eta Zeanurin dagozala eta San Blas, zezeilean 3an eta Santa Ageda, 5ean, bitartean -4an- **San Blas txiki** deitutako eguna izaten dirala (gaur egun, San Balendin eguna da -zezeilaren 14a- amodiozko harremanakaz lotuta dagoana). San Blasegaz jarraituz, tradizio handikoa da **sanblasaria** edo samatik eskegita ipintzen dan kordeltxu bedeinkatua, berderatzi egunez euki, gero kendu eta erre: holan egin ezkeru urte guztian ez ei da egongo katarrik edo samako beste kalterik. Begiratu zer entzun eban Azkuek

Zeanurin honen ganean: "San Blas egunean ezta goruetarik egin bear. Eginezkeru, samako mina izaten dau gorulariak". Zer esango dogu Santa Agedaz? Ohitura handia dago gure artean eske-koplak kantetan joateko etxez etxe, auzoz auzo edo herriz herri bezperako egunean, eta errondan dirua edo beste sariren bat (txorizo, odoloste...) batuteko ardurea erosten dauan lagunari **boltsero** edo **zestillero** esaten jako.

Baita be, itargi-egutegiaren arabera kokatuten dira **Karnabalak** edo **Aratosteak/Aratisteak/**

Aratusteak/Atesteak. Honeek jaiok zezeileko kontua izaten dira urte gehienetan; aurten ez oster, ze **Martitzen Karnabal** martiaren 8an jausten da, **Etberamartxo** aurreko domekan, 6an, eta **Eguen Zuri** (Ostegun Gizen, euskera batuaz) aurreko egunean, hau da, 3an. Azkenez, **Kanporamartxo (Kanporamartxa Zeberion, Kanpomartxo, Kanpromartxo** Galdakaon edo **Txitxi-burruntzi**) da Karnabaletako domeka baino astebete lehenago ospatuten dan urteerea, inguruko baso edo landa batera lukainkea edo urdai errea jatera.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112Guardiako Farmaziak
Zezeilaren 14tik 20raZamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

Zezeilaren 21etik 27ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

Zezeilaren 28tik martiaren 6ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

Zeberikoak ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Abertzaleatasunaren Museoa

94 631 72 51

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gazte Informazio Bulegoa

94 673 62 51 eta 639 018 133

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengo

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15,

12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean

urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak

16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoaKULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceministerio de Política LingüísticaBizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saia
Departamento de Cultura

bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefona: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.comwww.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor eta Aritz Zubiate.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Igorreko ezker abertzalea taldeari zuzendutako argibidea

Azkenaldian Igorreko ezker abertzalea taldekoak Igorre Danontzat taldeari eraso egin nahian kartel anonimoak, aurrekontu municipalen inguruko alkatearen eretxia adierazten eban buzoneoa eta BEGITU Aldizkariko "Zeure berbea" atalean argitaratutako eskutitzak erabiltzen dabiz. Horrez gan, aitatutako aldizkarian inongo objetibotasunik bako arlo orokorreko informazioa be argitaratu da.

Aitatuak izan garanez, hemen gure erantzuna:

Gezurra da San Juan auzoko lanak jarraitutea behartu edo derigortu dogula, modu honetan gizon eta emakumeen arteko bardintasun teknikari bateri zuzendutako lanpostua galarazoz; Igorreko ezker abertzalearen taldeak behin eta barriz hori baieztatu badau be.

San Juan auzoko lanak Udal Bilkuran eta ago batez onartuak izan ziran. Bestalde ez dauka inongo erlaziorik gure Bardintasun Planaren kudeaketarako persona baten kontratazioaren aurkako botoa emoteagaz. Zeraren burutzea "Obrak eta inbersinoak" partidari jagoko eta "Bardintasun teknikaria" kontratetea "Gastu aruntak" partidaren eztabaidatzen da. Beraz, barmiz errepikatzen dogu, ez dauka zer ikusirik gauza batek besteagaz.

Urte bi iraun dauan bardintasunaren inguruko ikerketa bat egin da, zeinek 30.000 euro inguruko kostua izan dauan. Uste dogu gaur egungo egoera ekonomikoak ez daukala aholkatzen Igorreko Udalerako gizon eta emakumeen arteko bardintasun teknikari bateri zuzendutako urte birako eta egunerdiko lanpostu bat sortzea.

Horrez gan hau, betikotu daitekean lanpostua sortzeako sistema bat izan daiteke eta gure taldea ez da Udaleko lan taldea handitzearen aldekoa. Ikerketea Udalaren web orrian euskeraz soilik eskegi zan. Nahiz eta euskera hizkuntza ofizialidea izan eta euskal herritar guztiok gaztelania dakigun bezala euskerea be jakin beharko geunkean, herritar guztiongana iristeko borondatea zalantzarria da. Ez dogu uste bardintasunaren adibide danik. Horregaitik gure taldeak ikerketea gaztelaniaz be argitara eiten eskatu eban.

Bardintasunagaz erlazionautako aktibidadeak jarraituteko ez da beharrezkoa partida ekonomikoak edota subentzinoak jasotea. Lanpostua ez sortzeak ez dau esan gura proiektua bertan behera itxi behar danik.. benetako interesa bardintasuna lantzea baldin bada behintzat. Igorren hainbat kirol eta kultur alkatere dagoz subentzino edota diru laguntza handirik jaso barik lana ondo betetzen dabena.

2010eko aurrekontuaren oinarria batez be gure taldeak burutua izan zan eta ondoren ago batez onartua izan zan. 2011ko aurrekontuetatik, 2010ekoaren bardintsuak izanik, ez doguz ulertzen preminak, bapateko eretxi aldaketak, honeen iraupen aldaketak (alkatearen lehenengo proposamena maiatzean hauteskundeak izango dirala kontutan hartuta sei hilabeterako zan eta ondoren urte osorako bihurtu zan), negoziaketa esfortzu eta denpora eskasia, akordio batera iritsi barik plenoan aurkeztearen sorpresea, eta abar. Guretzako, aldeak txikiak izan dira, baina gaindiezinak, batez be bardintasun teknikari baten lanpostua sortzeako alkatetzak daukan interes ulertzen nagaitik.

IGORRE DANONTZAT

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

ERETXIA

Sortu

Udal hauteskundeak baino hiru hile lehenago, ezker abertzaleak bere proiektu barria aurkeztu dau: Sortu. Askok Batasunaren ondorengotzat jo arren, Sortuko kideak hutsetik hasi gura dabe, lehengo taldeakaz identifiketan ez diran printzipioak defendatuz. Sorturen bultzatzaileen berbetan "iraganazko erabateko haustura" da.

Sorturen oinarri ideologikoak Euskal Herriaren independentzia, euskalduntze "osoa", sozialismoa, "askatasunean eta justizian oinarritutako etorkizun baketsua", feminismoa, alkartasun internazionalista eta antiimperialista eta demokrazia parte hartzailea dira.

Sorturen aurkezpena Bilboko Euskalduna Jauregian izan zan zezeilaren 7an. Alderdi barriaren estatutuak, Rufi Etxeberria ezker abertzaleko buruzagi historikoak eta Iñigo Iruin abokatu eta HBko senatari izandakoak azaldu zituen. Aurkezpen honetan, Partiduen Legea betetzeko borondatea eta indarkeriaren onarpen eza, ETaren indarkeriarena barne, agertu zituen.

Sorturen estatutuak argiak dira terrorismoari jagokonean. Nahiz eta neurria demokratikotzat ez jo, Partiduen Legea betetzen ez dabena partidutik botatzeko posibilitadea aurreikusten dabe. Neurri hau, ezker abertzaleak Espainiako sistema politikoaren parte izateko daukan preminak sortutakoa da. Iruin urte biz ibili da beharrea alderdiaren "corpus juridikoa" egiteko. Baina ez da bakarra izan, behar honetan lagundu deutso Javier Perez Royok, Sevillako Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna eta materia honetan erreferente handienetakoak.

Alderdiaren izenak berak be, erakunde armatuagaz apurtuteko gogoia adierazten dau. Izen hau, 1978an Herri Batasuna sortu zanetik, ezker abertzaleak



CARLOTA GONZALEZ
Zientzia Politikoko ikaslea

eta Rakel Jausoro dagoz. Emakumeen garrantzia partidu honetan ikusgarria da, bere oinarri ideologikoetako bat betez; feminismoa, hain zuzen be.

Euskaldunak aurkezpena egin baino lehen, alderdi politikoetako ordezkariak hasi ziran eretxiak emoten. Partidu nazionalista guztiak, EAJ-PNVk, EAK, Ezker Batuak, Alternatibak, Nafarroa Baik eta IUN-NEBek txalotu egin dabe partidu barria. PSOE, Espainiako gobernu eta Eusko Jaurlaritza erdibidean geratu dira, taldearen jokaerari denpora emoteko eta horren arabera ebazteko legalizatu behar dan ala ez. PPK eta terrorismoaren biktimen alkatereak Sortu guztiz arbuatzen dabe. Dana dala, Iñaki Oyarzabalek euskal herriko PPKo idazkari nagusiak "lehendakariaren berba zuhurrakaz, bere baikortasun exigenteagaz geratu gura dogu" esan eban, Sorturi konfidantza boto bat emonez.

Kaleko jentearen eretxiak ugariak dira, gure herriko abaniko politikoa legez: aldaketea posible dan konfidantzetatik hasita, ETAK ordezkari politikoak izateko saiakera bat baino ez izatearen bildurreraino.

Zer gertatuko da Sortugaz? Horixe da danon itauna. Bere estatutuak, seguru asko, legalak izango dira, kontuan hartuta Iruinen zorroztasuna idaztean. Baina zerrendak atzera bota daitezke. Ikusteko dago iragan politiko ezagun bako personak osotuta dagozan ala ilegalizautako sigletako militante ohiak diran. Eta zerrendak "garbiak" izan arren, ikusi beharko da ea epaileak oneretxia emoten deutseen Udal hauteskudeetan parte hartzean itxiz. Baina prozesu hau Sortuk gainditu beharreko suaren frogaren zati bat baino ez da. Sistema politikoan mantentidu gura bada, kontuz ibili beharko da bere adierazpen eta aktuazinoakaz eta denpora guztian terrorismoari txarrespena adierazi, bai etorkizunari begira, bai atzerabegirakoari.

erabiltzen dauan 13. izena da, lehenengoa ETaren indarkeria baztertzen dauana.

Barne Ministerioaren Partiduen erregistroan estatutuak zezeilaren 9an aurkeztu ostean, alderdiaren barne egiturea eta sortu dabena "muina" osotuten dabena izenen jakitun gagoz. Ezker abertzalearen marka honen buru Maider Etxebarria, Bilbon bizi dan Geologia doktorea da. Batzorde iraunkorrean, Karmele Agirregabiria udal euskaltegi bateko zuzendaria, Xabier Artola EHuko irakaslea

Arratiako
aek
Lehendakari Agirre 4,
Igorre
94 631 56 57

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEN ERDARAZ
Batasunak: A1, A, BTR, B
Lehendakari Agirre 35
Tfn: 94 631 51 32
48140 IGORRE (Bukaria)
garantxe@mozkalnet.net

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfn: Faza 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu
Igorre
BATZAR EGUNAK:
egunero 20etatik 22etara
Udaltzako arlopetan
EPA-ko lokalak
KONTAKTUTZEO
TELEFONOAK:
690 139 044

Erreka
Garratxoak
Mugihorra 629 465 335
Barrutia auzoa, 12 LEMOA
Tfn: 94 631 58 82 Fax: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

Los Chopos
neurritara egindako armairuak
Alda. Los Chopos, 35 (Nagar) Tel: 94 430 40 94
Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDAREN HEGEZIZINEN
ASIGURUTAN
Bilbo Auzoa, 3 Tfn: 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 01 - 48140 IGORRE

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Pizkunderako berezienetakoa

Alvaro Rabelli zeanuriz-tartuak Gurutz Sarasola Martinez "Lotsati" Itsasondoko (Gipuzkoa) poetaren 1935 eta 1936. urteen arteko obra laburra aztertu dau. Orrialde honeetara dakart, sano ondo azalduta datozalako orduko hizkuntza aldetiko inguruabarrak, giroa... eta abar, baina batez be Lotsatiren heriotza latza -burua trenera botata hil zan, maitemina jota antza- eta luma bizia erromantikoen sasoikoak diralako, bizitza abertzale katolikoagaz nahastean. Irakurketa berezi bat gura badozue, hemen dozue aukerea.

Tristezia eta bizitza darion poesia gazte honetan, gai nagusi diran sentimentuak modu elegantean datoz. Artista inpre-

sionistearen zehaztasuna darabil emozinoak deskribatukeran, ia denporarik eta lekurik bako poetika bat erabiliz, bihotzean kokatzen dana. Erraietako paisajea da Gurutz Sarasolarena, gaur egun oraindino harrigarria, eta gerra aurreko sasoi hareetako euskal irakurleai, seguru, fresko eta ausart begitanduko jakeana: "...orain nire ondotik pasatzen zeranean/ Ezpaña okertuz eta arrabiarekin/ Ayo esaten dizut. Bañan ay!/ Ez dakizu zein bestebat dan/ Barreanean sentitzen dedana". Irudi gogorakaz eta halako dramatismo gotiko bategaz, Lotsatik irrealidadearen mugetara daroa irakurlea: "Aizkorea artuko nuke,/ Ankea ebakiko nuke.../ Eta jana emango nizuke". Lotsatiren poemetan galtzea ariketa modernoa da horratio, gerrak eten eban pizkundeko ahots berezienetakoa gozatze-ko aukera parebakoa.

BEGI TXINDORRA

Ez daukat gogoan ez liburuaren titulua ezta egilearen izena, baina orain dala 10 bat urte lagun batek itxi eustan lakota (gatxizenez *sioux*) indioen ganeko liburu bat. Liburu mardula eta sakona zan eta jente haren munduaren ikuspegia sano ondo erakusten eban. Ikerketa haretako lakotak eta susmoa daukat, giza-kiaren historia osoan zehar eta gaur egun natureagazko hartu-emon izpirik daukien gizaki guztiak, etenbarik harrituta bizi ziran eta bizi dira, nahiz eta harridurea sortzean eutsiezan gauzak behin eta barriro errepikatu. Lo egin ostean, esnatzean, barbarako, harritzen ziran eta harritzen gara. Bizirik egoteagaitik, besterik ez bada be.

Urtero-urtero eta mundu osoan harrituden gaituan beste gauza bat naturearen esnatzea da. Argazki-makina eskuan ibiltzen garan guztiok, oraindino negua dan bitartean, lehenengo lorak erretratetan doguz. Danok. Eta argazki xume horreek emozinoz, harriduraz eta pozez beteta egoten dira.

Ez da erromantiko edo bigun batzuk garala, ezta San Balendinek txotxolotu egin gaituala be. Ameriketako belardi zabaletan naruzko etxeetan bizi ziran lakota haren moduan, goizero esnatzean eta urteko lehenengo lorak ikustean harritzeko gaitasuna bizirik mantenduten dogula baino.

EGI BATZUEK AIXETARATZEN



JUANJO RESPALDIZA

Gaia jarrita: "Mozorroa"

1

Izango da keinu bat, berba bat, barrea, itxurazko poza ta guzur-haserrea... mozorroak ez al dau balio urrea? Atzea gordetako dakargun aurrea.

2

Gure mesedean nahiz besteren kaltean noz gura ez dogula noz uste betean edo defentsarako edo atakean tranpa-jantzi asko da pertsonen artean.

3

Begi errezelotsu batzuen esklabo mozorro bihurtzen da dana, ta akabo ustea joaten bada neurritik harago ikusi egiten da ta egon ez dago.

4

Agertzen bagatxakoz garbi munduari aurpegi bakarra ta munduak ugari gabx dago aurre egiten geure buruari orduan sentitzen dan biluztasunari.

5

batzutan ikusten da begiak itxita zetako da orduan aldean jantzita jantzekotan ezin da dudan ibili ta norbera da mozorro edo alperrik da.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
 Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
 gorosti@gorostisci.com


Ortodontzia
 Implantateak
 Estetika
 Marina Urigoitia Aidedkoa
 Odontologia
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igome-Bikala
 T. 94 631 50 39
 Nafarroa Zirkuluak 110
 R.P.S. 25/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA
 Iñaki
 Martín Gorostiza
 Tel. 607 272 424
 610 271 128
 Tel/Fax: 94 433 22 28
 Ubideratzeak
 Lurrerauzketak
 Baso pistak
 Ur Putzuak
 Era guztietako hondeaketak
 Bº URIBE - 48144 ZEANURI
 e-mail: margoiza@euskonet.net

ARRATIA

Gazte Planaren diagnosiak lehentasunak markauko ditu

Momentuz ekintzarik ez badaukie be, Gazte Informazio Bulegoa ez dagoala zarratuta argi itxi gura dau Arantza Atutxa Gorbeialdeko arduradunak. Egindako lanaren balorazioa egin dau BEGITURAKO eta baikor agertzen da etorkizunari begira.

Erredakzioa

Finantziarioari jagokonean, zein egoeratan dagoz gazte politikak eta ze etorkizun daukie?

Pasa dan urtean BFAK ez eutsen diru laguntzarik emon Arratiako Udala gazteentzako ekintzak egiteko. Horrek eragina izan eban Udalen aurrekontuetan, baina ostera, BFAK mantendu ebazan Gazte Planerako laguntzak. BFAK emondako diru hori egiturarako zan. Hau da, beharginak eta bulegoa mantenduteko. Horregaitik bulegoak zabalik jarraituten dau eta gazteak, bertara joaten dira txartelak egiteko edo edozein aholku eskatzeko. Dana dala, aurten ez dogu ekintzarik planteau. Egoera ekonomikoa larria da: Eusko Jaurlaritzak ez euskun diru laguntzarik emon eta BFAK bakarrik egiturarako. Eta Udal aurrekontuetan be murrizketak egon dira.

Ekintza barik, zer dago egiten Gazte Informazio Bulegoa?

Geldialdi bat, hausnarketa bat. Gazte Planak badaroz lau edo bost urte eta momentu egokia izan daiteke balorazio bat egin eta etorkizunari begira ze erizpide jarraituko diran planteetako. Gitxi gorabehera bagilera arte, diagnosi barri bat egingo dogu. Konziente gara gazteak orain arte euki dabazan ekintza guzti horreek ez dabezala eukiko, baina dana ez da bertan behera geratuko. Hausnar-

"Orain arteko lanak frutuak emon dauz eta ezin da bertan behera itxi"



Gazte Informazio Bulegoak Igorren daukan bulegoa.

ketea egin gura dogu eta behin hausnarketea eginda, beste programa barri bat planteauko dogu.

Orain arte landu izan dana Eusko Jaurlaritzak ezarri ebazan gazte politikako ekintzak izan dira: lana eta laneratzea, formakuntzea, etxebizitza, aisialdia eta kultura eta osasuna landu dira. Ekintzak horren ingurukoak izan dira.

Aurten ez da ekintzarik egingo?

Gazteai ez jakie programazioaren informaziorik bialdu, ez daukagulako programaziorik. Gure asmoa da gazteak egon eta euren eretxiak jaso, egoera eta euren asmoak diagnosian egon daitezkan. Baina kontuan izanda, dana ez dala aisialdiaren inguruan bultzatuko. Uste dot gazteak be ez dabela hori gura, formakuntzea asko eskatzen dabe, adibidez.

Ekintza arrakastatsua egon dira eta nik uste dot era bateratuan egin dirala, Arratiako Udal guztiak parte hartzeak erraztu egin dau, baliabideak ondo erabiltea eta gazteen hartu-emonak heritik kanpokoak izatea. Gazteen hartu-emonak ez dira herri barrukoak bakarrik, ze Institutuan batzean dira edo beste hartu-emonak daukiez.

Orain artekoa sano aberasga-

ria izan da.

Eta zer espero dozue etorkizunerako?

Guk ikusten dogu badagoala ardurak bat. Udal aurrekontuak asko murriztu dira. Ez dakigu zenbat denpora beharko dan galdu diran diru sarrerak berreskuratzeko. Gastuak lehentasunak jarri behar jakiez. Agian, lehentasun horreetan, formakuntzea, laneratzea eta holangoak egongo dira etorkizuneari, baina beti ikusi egin beharko dogu gazteen egoera zein dan, euren asmoak eta gogoak zeintzuk diran. Uste dogu alde bien arteko lan bat izan beharko litzatekeela.

Guk herriko alkateai aurkeztu deutsegu urteotan egin dan ahalginak frutuak emon dauzala. Bulegoak hartu-emonak daukaz gazte askogaz, gazteak badaukie erreferentzia bat bertara joateko eta taldeak sortu dira ekintzetatik. "Elkar ezagutu gaitzen" ekintzatik sortutako taldea, barbarako, oso sendoa da. Musika taldeen inguruan be, mobimentu bat sortu da. Eta zer gertatzen da prozesu hori eten egiten badogu? Erlazino hori galtzean dala, erreferentzia be bai, eta hori berreskuratzea sano gatxa da. Pena izango litzateke hori moztea, baina ez dogu uste hori moztuko danik.

ARRATIA

Argiak kontrolatuko plano digitala egingo dau Mankomunidadeak

Erredakzioa

Mankomunidadeak argi bakotxa non dagoan eta zelan funtzionetan dauan kontrolatan dauan plano digital bat egiteko enkar gau deutso ingenieria enpresa bateri. Gauza bera egingo dabe zabor ontziakaz, Deiak informau dauaren arabera.

Informazio geografikoko sis-

tema honeri esker, zeozerk txar-to funtzionau ezker, segiduan jakingo dabe zer gertatu dan eta non dagoan akats hori, askoz azkarrago konpondu ahal izateko.

Plano honetan, farola bako txaren ezaugarriak ipini daitezke. Holan, udalerrri bako txak farola bat noz ipini zan edo zenbat gastetan dauan jakin ahal izango dau.

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktua
Lehendakari Agirre, 11 bis. • 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 62 34 • Fax 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

begitu
arrieta ubide zerbeto

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaz zein ordenez
Garbe, 10 - 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31, Faxa 94 673 70 83
e-posta: unokua@euskotrieta.net

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Fax: 609-79-40-54

ekin s.a.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETA
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOAK BIDEAK
FABRILLOAK
URBANIZAZIOAK
Bekokale 12 - 48143 Areatza (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Fax: 94 673 95 25
email: c.ekin@telefonica.net

Euskerazko 82 hedabidek editorial hau atera dabe zezeilaren lehenengo egunetan. BEGITUk be bat egiten dau eta lerrootara dakar ezer aldatu barik, heldu dan moduan.

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokalitiko globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, pozik egiten dugunarekin, euskal kulturaren isla eta hauspo

gara, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu. Albistea eta informazioaren haritik, entretenimendutik, gertukotik, sakonetik, zientziatik...

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Hiztun komunitateak bere burua euskaraz islatua ikusteko eskubideaz ari gara, beharraz, nahiaz. Edozelako gizarte modernoren orainean, edozein kulturaren geroan, giltzari da hedabideen zeregina. Ez da hau ukatuko duenik eta hala ebazten da behin eta beriz erakunde publiko eta alderdi politiko gehienek euskarari buruzko gogoeta eta plan estrategikoetan. Printzipio eta helburutan letra larri ai-

tortzen dute garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez.

Ezagun da EAE, Nafarroa eta Iparraldean oso egoera desberdina bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundeek sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez da nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Euskarazko hedabideok ohituta gaude zailtasunean jarduten, gure hizkuntzaren izaera ez normalizatuak horretara bultzatzen gaitu, eta agian horrek ere laguntzen digu bizi dugun krisiari aurre egiten. Baina egoera gorria da eta hainbatetan larria. Hedabide ugari ari dira ixten munduan, hedabide historikoak,

ospetsuak, gurean aldean handi eta indartsuak... Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarikatzen dugu. Maiz aurpegiatu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, ostera, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarizat jotzen diren esparri eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatuak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerio soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Eta instituzioen konpromiso sendoagoa ere egunerokoan ikusi nahi dugu. Herri erakunde publikoen sostengu eta babes handiagoa aldarrikatzera gatoz.

Gure gizartearen garapena ezin delako porlana eta azpiegitura handien garapenari lotu. Adibidez, Euskal Y tren proiektuaren kilometro bakar batek, erakunde publikoetatik euskarazko hedabide ez publiko guztietara lau urtetan bideratzen dena balio du. Errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezake. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

Zertu Kultur Elkarteak hiztegia doban emongo deusue Begitu-lagunai enpresa honeeri esker:

ARRATIA INGURUKO HIZTEGIA

begitu

P r o b a t u e u s k e r a z

Donibane Taberna
Gau Lora Akeitegia
Viajes Ecuador Bidaiak
Nati Ile-apaindegia
Expert Arratia
Belagorri Belar-denda
Agoa Hagin Klinika
Surya Edertasun Zentroa
Kivru Ile-apaindegia
Edurtzeta Janari-denda
Fruteria Bestriz
Kili-kili Umeen Denda
Iru-deko Burdindegia
Igorreko Gasolina-zerbitzugunea
Aldeturriaga Oinetakoak
Garantze Autoeskola
Sein Umeen Moda
Galanta Lentzeria
Merka Labela Janari-denda
DIA Autozerbitzua Igorre
Enar Kirolak
Medrano Jatetxea
Mari Jose Kioskoa
Politte Arropa-denda
Ikusgarri Hanburgeseria
Zekutze Jatetxea
Kantabriko Arraindegia
Arratia Zerbitzu Inmobiliarioak
Osa Bitxi-denda
Kai Osagarriak
Artzegune Argazki eta Pintura
Ipar Kutxa
Haizea Natura Estetika Zentroa
GTDkoro?
Ainara Kirolak
Elexalde Pinturak
Ezkur Zapata-denda
Zizare Grow Denda
La Caixa
Egibe Estetika Zentroa
Larrea Inmobiliaria
Goloski Gozo-denda
Lorane Bazar
Mapfre Aseguruak
Banco Guipuzcoano
Igorre Pintura eta Dekorazio-denda
Arriaundi Okindegi-gozotegia
Arratia Autoeskola
Naiara Hagin Klinika
Sergio Taberna
Hotel Arantza
Marisol Ile-apaindegia
Erkiña Taberna
Txaparro Jatetxea
Axular Kultur Elkarteak
BBK
Kukuma Taberna
Jubilatuena Txokoa
Kiriño Taberna
AZ Rugby Taberna

AMODIO ERROMANTIKOA

Bikotea indarra hartzean dago Euskal Herrian

Maiteminduen eguna pasau barritan eta udabarria bueltan dogula, Arratian eta Euskal Herrian amodioaren inguruan dagozan topiko eta errealidadeai begiratu bat emon gura izan deutsegu. Gaiaren inguruan ikerketa gitxi egon arren, jentearen interesa bizten dauan gaia da hau duda barik.



Zisneak amodio erromantikoaren ikurrak dira.

Erredakzioa

San Balendin egunean maiteminduen eguna ospatzea herrialde anglosajoiarriaren tradizioa da, baina beste herrialde askotara hedatu da, gurera be helduz. "Egun horrena globalizazio anglosajoiarriaren beste fenomeno bat da. Hau da, globalizazioaren ondoriozko ohitura konsumisten beste adierazle bat. Horko aldetik ba, Halloween, Papa Noel eta antzekoan neurrian ipiniko neuke" azaldu deutso BEGITURI Urtzi Barrenetxea soziologoak.

Dana dala, gure ohituretan ez dala sartu uste dau Mari Luz Estebanek EHUko Gizarte Antropologiako irakasleak. "Sartzean doa txiri-txiri. Oso lotuta dago eredu konsumisteagaz eta ikusgarri dago dendetan, erakuslehoetan... baina ez gure bizitzetan. Egongo dira batzuk lorak eta oparitzen dabenak, baina ez gehiegi".

Bikotekidea ez da beharrezkoa Euskal Herrian

Herrialde anglosajoiarriaren familiariaz kontaktu gitxi, ordu lu-

zeak lantokian eta hortik kanpo jenteagazko hartu-emon gitxi izaten dirala erakusten deuskue Hollywoodeko film eta telesailak. Gurean, barriz, familiariaz kontaktua mantentzen da bizitza osoan, koadrilak funtsezko papela jokatuten dabe eta lanetik kanpo be, aisialdia modu sozialean betetzen da. Herrialde anglosajoiarriaren "bikotearen inguruan dago antolatuta gizarte osoa. Holan ulertuten dira *datingak*, beste gauza batzuen artean. Han bikotea biziraupen kontua da ia. Hemen daukagun senidetasun sistema eta lagunen arteko hartu-emonakaz bikotekidea ez da oinarritzkoa" dino antropologoak.

Mari Luz Estebanen esanetan Euskal Herriko gizarte nahiko segregatuta dago. Lanean, aisialdian... danean emakumeak alkarregaz egoten dira eta gizonak alkarregaz. Gustura egoten gara la holan dino eta bizi gaitezkeala bikotekide barik.

Orduan, zertarako ligau? Sexu hartu-emonetarako akaso.

Sexu hartu-emonak: topikoak apurtuten

Euskal herritarren sexu hartu-

emonen errealitatea jakiteko datu estadistikoak behar geunkez, edadea, bikotekiderik daukien ala ez, herrian ala urian bizi diran eta beste hainbat aldagai kontuan hartuta. Eta gero datu horreek beste lekuetako datuak alderatu. "Gitxi dakigu horretaz, baina nik uste dot jenteak badi-tuala sexu hartu-emonak. Euskal Herriko baserri baten bakarrik bizi dan gizon edo emakume

bat Andaluzian bakarrik bizi dan beste gizon edo emakume bat baino gitxiago masturbetan da? Ez dakit, baina ez dot uste" dino Estebanek. Eta gaur egungo gazteak beste lekuetako gazteak baino gitxiago ligetan dabela be ez dau uste antropologoak. Alderantziz, Pfizerrek Espainiako estadiuan egindako ohitura sexualen ganeko azterketaren arabera, andaluziarrak baino

"Gero eta gehiago gure ideala da bikotea izatea (ez derrigor heterosexuala) umeakaz"

"Gurean lehen natalitatea erregulau behar zan, baserria batentzat bakarrik zalako"

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea suzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

HONDRAGON
INDUSTRIAL CONTRACTS

pozago gagoz euskal herritarrak gure sexu hartu-emonakaz eta denpora gehiago eskeintzen deutseguz. Azterketa honen arabera, euren sexu hartu-emonakaz Erkidegoan oso pozik edo dezente pozik dagozanak %62 dira, Andaluzian, barriz, %57. Eta sexu hartu-emonai emondako denporea be, estaduan emoten jakona baino gehiago da hemen. Holan, Erkidegoko herritarrak, batz beste, astean bi ordu eta erdi jarduten dogu.

"Adin guztietan ikusi dot ondo pasetea erotika kontuetan bikotekidea izatea baino garrantzitsuagoa dala persona batzuentzat. Gizartearen pentsamentuan pisu handiago hartzean doaz desira biziteko eta gauzatzeko modu ugariak: bikote zarratuak, fidelak, baina ekonomia kontuetan ez dabenak bat egiten; bikote hartu-emon irekiak, beste personakaz egon ahal diranak;

Erkidegoan oso pozik edo dezente pozik dagozanak %62 dira, Andaluzian, barriz, %57

amoranteak, laguntasun inplikazio desbardinakaz... Jakin badakigu idea honeek ez dirala barriak eta holan bizi izan dirala persona ugari Euskal Herrian baina agian ezutuago" dino Saioa Hernandez sexologoak.

Edadea garrantziko aldagaia da sexualidadean. Pfizerren Espainiako jentearen ohitura sexualen ganeko txostenaren arabera, 54 urtetik gorakoentzat sexu hartu-emonak ez dira hain garrantzitsuak. Baina edadean aurrera doazanak baditue benta-ja batzuk.

"Batzuek zahartzaroan inoiz baino gehiago disfrutetan dabe, haurdunaldi eta familiaren kezka ez izateagaitik, bikote hartu-emonari barriro errekuereiteagaitik eta pentsamentu erlijiosoak alde batera ixten ikasi dabelako" dino Hernandez sexologoak.

Izan be, "gure aitita-amamen sasoiari sexualidadea errepre-

mituagoa zan" Barrenetxearen eretxian.

Gizarte desbardinetan sexualidadea erreguletoako modu desbardinak dagoz eta gure gizarte tradizionaleko sexualidadea erreguletoako moduak natalidadea murriztera egozan zuzenduta. Izan be, gurean natalidadea erregulau behar zan, baserria bantentzat bakarrik zalako. Hori dala eta, Miren Llona EHuko historia irakaslearen ustez antisorgailuen aurreko nekazal gizarte baten "ekarri eban sexualidaderik eza sustatzea. Holan gurean, ezkontzak beste herrialdeetan baino beranduago izaten ziran". Eta beste mekanismo asko egozan gizartearen beraren antolaketara horretara zuzentzeko: artean erotismoaren presentzia urria, baloreen hierarkiak... Horrek azalduko leuke, neurri handi baten, Euskal Herrian ez dala ligetan topikoaren jatorria.

Gaur egun, ostera, modu tradizionalek eta modernoak bateratzen dira eta gai honetan be holantxe da. Holan, herrialde anglosajoiatoko amodio erromantikoaren eredu indarra hartzean dago gurean be. "Ezin da ukatu erromantizismoa sartu egin dala gure gizartearen. Eta erromantizismoak familia eredu bat, genero eredu bat eta gizarte eredu bat ezartzen ditu" dino Mari Luz Estebanek


Euskal Herri erromantikoa

Erromantizismoa ilustrazioari kritika moduan sortutako mobimentu artistiko eta soziala zan. XVIII. gizaldian sortu zan Alemanian eta Erresuma Batuan, eta XIX. gizaldian Europa osoan zabaldu zan. Ezin ukatu, Euskal Herrian ondo erroto zala. Erro-

mantizismoaren ezaugarrietako bat herriak goraiatzea da eta nazionalismoen oinarriak jarri zuten. Hortik edaten dau Sabino Aranak, eta kontzepzino abertza-leak kontzepzino erromantikoak dira. "Nik uste dot Euskal Herriak bizitzaren ikuspegi oso erromantikoak daukala. Hor dagoz Ez Dok Hamairuren kantak, berbarako. Ikuspegi erromantikoa ez da mugatzen herriari, amodioari be lotzean jako".

Baina amodio erromantikoa, gaur egun sustatzen dan amodio eredu da, filmak eta telesailak erakusten deuskuen hori. Eta arrakasta handia izan dau gure gizartearen. Amodio erromantikoak familia, generoa eta alkarbizitza eratzen ditu. "Gero eta gehiago gure ideala da bikotea izatea (ez derrigor heterosexuala) umeakaz. Eta hori da zentroan dagoana. Eredu hori sartzean, garrantzia handia izan dabe telesailak eta legeak. Sistema juridikoa bikotea eta familiaren inguruan eginda dago" azaldu deutso BEGITURI Mari Luz Estebanek.

Topikoak dino Euskal Herrian ez dala ligatzen, zientziak gaur egun kontrakoa dala erakutsi arren. Dana dala, euskal nekazal gizarte tradizionalean sexualidadea erreguletoako moduak natalidadea murriztera egozan zuzenduta eta sexualidadea eza sustatzen eben. Ostantzean, gaur egun indarrez sartu da amodio erromantikoaren ideala, bikotea zentro moduan ipiniz. Indar kontrajarri horreen artean mobiduten da euskal herritarren sexualidadea eta gizartearen eraketea: modu tradizionalean bikotekide ez beharrezkotik, modu modernoaren bikotea zentroa izatera.



Bikotea da ardatz amodio erromantikoarentzat.

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

PINTURA TAILERRA

areatza
pintura y decoración, s.l.

Pintura lanak
Goi mailako dekorazioa
Industrialia
Fabrikadak
Papereztatzea

eskatu aurrekontua konpromiso barik

Tailerra 94 426 16 58
☎ 639 769 780 - 629 435 895
BASAURI

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Zugaitik BEGITUten dogu
SALMENTAK ETA ALOKAIURUAK
TASAZNOAK (API 495)
DOBANEZKO AHOLKULARITZA INMOBILIARIOA
BULEGOAK ZORNOTZAN ETA IGORREN

www.inmobiliarialarrea.com
Tfnoa: 94.631.80.04

ellaURI HOTELA

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

MENDIA

Txikon Gasherbrum I-etik gora

Erredakzioa

Gasherbrum-en 6.000 metro ingurura dagoz Alex Txikon eta bere espedizinoko kideak hau idazten dogun momentuan. Lemoaztarraren abentura barri hau hasi zanetik, 22. egunean, pozik dago Txikon. Holan adierazten dau bere blogean. *Alex Txikon Mendian, mendian bizi izandakoak, sentitutakoak* blogean jarraitu daiteke mendizalearen erronka hau ia zuzenean.

Bertan, bideo batek erakusten deusku, zein egoera gogorra bizi daben Txikonek, Gösch-ek eta Rousseauk Gasherbrum-en. Hotzak eta haizeak gogor jotzen dabe eta.

Eguraldia dala eta egun batzuetako atsedena hartu ostean, barriro jarriko dira martxan mendizaleak G-leko hegoaldetik hurrengo kanpamentua 6.300 metrotara montetako. Horreta-

rako, Txikonen berbetan "astoen pare" zamatuta joango dira mendizaleak.

Baina indarra eta ilusinoia ez jakie falta mendizale honeeri G-I tontorra neguan zapalduko.



Gösch, Rousseau eta Txikon.

ERRUGBIA



Arratiko Zekorrek partidu baten.

Azken partidua galdu egin dabe Zekorrek

Ainhoa Duñabeitia

Azken astegienean ez dabe suberte handirik euki Zekorrek. Izan be, Mungiako Uribealde taldearen kontra galdu eben, 21-13. Zezeilaren 5ean, barriz, irabazi eben etxean, Arratiko Zekorrek 15-10. Datorren astegienean nagusiak atsedena hartuko dabe; kade-teak, barriz, etxean daukie partidua Gaztediren aurka. Partidua zapa-

tuan, hilaren 19an izango da San Txismen. Ordua zehazteko dago oraindino.

Talde barria

Zekorrek familia handitu dabe azken hileetan. Nagusiak, kade-teak eta neskaz aparte beste talde bat sortu da. Hamabost urteko jokalariaz egin dabe taldea eta inguruko taldeak lagunartekoak jokatzen ikusi geinkez San Txismen.

FUTBOLA



Arratia futbol taldeak taularen erdialdean jarraituten dau.

Danak bardin antzean

Maialen Egileor

Lemoa futbol taldeak zazpigarren postuan jarraituten dau. Azken partidu biak bardindu egin dauz, biak 0-0. Lehenengoa Irungo Real Union taldearen kontra eta ostean Logroñesen aurka. Orain

38 puntu daukaz. Hurrengo partidu Gimnastica de Torrelavegaren aurka jokatuko dabe.

Arratia

Arratia futbol taldearen gizonetakoak be bardindu egin eben 0-0 Larramendigaz, baina azken

jardunaldian galdu egin eban 5-1 Otxarkoagaren kontra. 25 puntu daukaz Igorreko taldeak orain eta hamabigarren postuan da sailkapenean. Arratiako andrazkoak ostera 0-0 bardindu eben lehenengo lurretakoren kontra eta gero 4-0 irabazi eutseen Enkarterriko neskai. Holan zazpigarren dira sailkapenean 28 puntuz.

MENDIA

Areatza inguruko mendiak ezagutzen

Erredakzioa

Gorbeia aldeko Areatzako baserriak ezagutzeko izan zan herri honetako lagun batzuek antolatu eben lehenengo ibilbidea. Hamar persona batu ziran lehenengo haretan. Bigarren urteera zezeilaren 13an izan zan, Urrekoatxa eta Lamindao egin eben. Honetan, barriz, 33 izan ziran eta giroa "sano polita" izan zan Josetxu Iturriaga antolatzailearen esanetan. Hurrengoa, kanporamartxo antolatueta pentsau dabe. Hilaren 27an

izango da eta Upora igoko dira. Eguraldi ona egin ezker, Upokomakatzan eta txarra egitekotan Upokosagarran egingo dabe barauskarria.

Jenteak eskatuta

Josetxu Iturriaga aretaztarrak guraso alkatereko mendi urteerak antolatzen zituan. Umeak eskolea itxi ostean, herriko jentea "hasi zan mendi urteerak antolatuteko eskatzen eta holan izan da" azaldu deutso BEGITURI Iturriagak.

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gabe, 29 Telefonoa: 94 671 60 14 IGORRE BIZKAI

MENDIA

Mendira andren artean joateko eskaintzak ugaritzen dabiz

Martiaren 8aren inguruko ekintzen artean, Dimako Andraize taldeak proposatuta, Arratiako Emakumeen I. Mendi Martxea Gorbeira antolatu dabe martiaren 13rako. Emakumeen erantzuna ona bada, egongo dirala gehiago dino Garbiñe Uriarte Andraize taldekoa eta mendizaleak. Uriarte Marimendi taldeko partaidea be bada. Marimendi 40 urtetik gorako andra euskaldunen mendi taldea da.

Erredakzinoa

Arratiako Emakumeen I. Mendi Martxa Gorbeira antolatu dozue.

Bai, Arratian martiaren 8aren inguruko ekitaldien artean sartzean da. Proposamena Dimatik joan da.

Lehenengo izate horrek esan gura dau gehiago be egingo dozuezala?

Hori da asmoa. Ikusi gura dogu jentearen erantzuna zelango dan, baina nik pentsetan dot baietz, jentea animauta dagoala eta gehiago egiteko asmoa daukagu.

Zenbateko sarritasunagaz?

Ez dogu ebatzi, baina asmoa da urtean behin emakumeen mendi martxa bat antolatutea. Akaso Gorbeira, ze Gorbeia hemen mendi garrantzitsua da, eta urtean behin ez da larregi. Baina hori ebatzi barik dago.

Etapaka antolatu dozue, zer dala eta?

Gorbeira esan ezker, asko ibiltzen ez diran emakume batzuk bil-



Garbiñe Uriarte.

durtu daitezke. Horregaitik dagoz etapak. Holan, batzuk joan daitezke Arrabara, beste batzuk Egiriñora eta beste batzuk Gorbeia tontorrera. Batzuk paseoan joango dira eta beste batzuk kurutzera heltzeako asmoagaz abiatuko dira.

Martxa hau martiaren 8ko ekitaldien barruan izango da beti? Ala data aldatuko da?

Ez dakit ze ebatzi hartuko dan, baina nire asmoa behintzat, martiaren 8aren inguruan urtero emakumeen mendi urteera bat

antolatzea da. Horrez gainera, beste proposamen batzuk eukiten dodaz lagunen aldetik, Arratian emakumeentzako mendi urteerak antolatuteko. Arratian Marimendi moduko talde bat antolatuteko esaten deuste.

Marimendiko partaidea zara, hortik sortu zan mendi martxa honen ideia?

Dimako Andraizetik urten zan eta, momentuz, esperimentu baten moduan planteetan dogu.

Zertan zabize Marimendin? Aurten nora joango zarie?

Proiektu handia urte birik behin egiten dogu. Normalean garagarilean joaten gara eta aurten ez goaz. Baina gu urtean zehar batuten gara eta egiten doguz urteera batzuk.

Zenbat zarie Marimendin?

25 inguru Euskal Herri guztikoak. Goi mendian ibiltzen diran 40 urtetik gorako andra euskaldunak. Gura dauanak izena emon ahal dau. Sano giro ona dago.

Orain dala gitxi Aizkorrira joan ginan. Hurreko mendiak egiteko be geratzen gara, hartu-emon ez galtzeako. Eta Pirinioetara be egiten doguz urteerak, eskiatzera, eskalada egitera... teknikak eta ez galtzeako eta ikasteko be bai.

Marimendin Arratiako hiru gagoz nire ahiztea Lurdes Uriarte, Miren Garbiñe Etxebarria Lemoakoa eta hirurok.

Arratiako Emakumeen I. mendi martxan parte hartzeako baldintzak bete behar dira?

Ez, emakumeak izatea baino ez. Goizeko 09:00etan batuko gara Areatzan, eta bueltan, 14:00etan edo 14:30ean, txixi-burruntzia egongo da bertakoak antolatuta.

PELOTEA

Arratia-Nerbioi A finalean Lemoa eta Zeanuri

Erredakzinoa

Lemoa eta Zeanuriko pelota eskolak sailkatu dira Arratia-Nerbioi A txapelketaren finala jokatzeko hilaren 19an Dimako frontoian. Lemoa mutikotxu, mutiko eta gazteak kategorietan sailatuko da txapela eskuratzen; Zeanuri, barriz, umeak kategorian. Gaztetxoak eta gazteak goizeko 11:00etan neurtuko dira eta besteak 16:00etatik aurrera.

Finala

Finalerako sailkatutakoak honeek dira:

Umetxuak: Zaratamo vs Zornotza. Umeak: Zeanuri vs Zornotza.

Mutikotxuak: Lemoa vs Zornotza. Mutikoak: Arrankudiaga vs Lemoa.

Gaztetxoak: Arrankudiaga vs Orozko B.

Gazteak: Lemoa vs Orozko.

B txapelketea

Zapatuan, hilak 12, Arrankudiagan B txapelketea jokatu zan ostera, eta emoitzak honeek izan ziran:

Umetxuak: Orozko B 18 - Orozko D 11.

Umeak: Zornotza B 18 - Usansolo B 17.

Mutikotxuak: Orozko B 18 - Lemoa B 7.

Mutikoak: Orozko B 18 - Usansolo C 12.

Begitu-lagun egiteko aukera parebakoa

bi lagunentzako afaria
Axpe Goikoa jatetxean

edo **gaua+gosaria**

Atxaspi Hotelean
zein Ellauri Hotelean

eroango dozu sari lez

Urtailaren 5etik martiaren 31ra

begitu-lagun barriai Arratia inguruko Hiztegia doban emongo jakie eta zozketa berezia egingo da eurek az BEGITUren 9. urteurrenagaz batera

7 begitu-lagun
ekarten badozuz:

MUSIKEA

Khaosa Diman Niken eskutik

Urtilaren 29an egin eban bere aurkezpena Dimako Nik taldeak. Eta orain arte kontzertu bakarra jo arren, badaukaz beste dozena erdi bat kontzertu hitzartuta. Hurrengoa, hilaren 26an, Poxpolu Rock jaialdiaren barruan. Nik taldeak kaos izeneko Ameriketako musika estilo barria jotzen dau eta Arantzazu, Dima eta Igorreko mutilak osotuten dabe taldea.

Erredakzioa

Khaos edo ñu metal (*nu metal*, *nü-metal*, *new metal* edo *aggro metal*) 90 urteetako hamarkadaren erdialdean sortutako azpigenero bat da; *funk*, *grunge*, *rap* eta *heavy metal*en eraginak batzean dituana. "Estilo gogorra, oldarkorra eta potentea da. Momentuz hori gabiz egiten, datorren urtean, akaso, beste zeozer egingo dogu" azaldu deutso BEGITURI Urko Santxez Nik taldeko gitarrajoleak.

Estiloa Korn taldeak 1994an izen bereko diskoagaz eta Deftones *Adrenalina* (1995) diskoagaz sortu eban.

Nik taldea osotuten daben sei mutilak Dimako entsegu geletan batzean dira zapaturu, musika hau jo, kantak sortu eta kontzertuak prestetako.

Barria baina ez hainbeste

Nik taldea barria izan arren, taldeko batzuk esperientzia daukie beste banda batzuetan jo dabe eta. Holan, Patxi Iza dimoztarrak Nik taldean bajua jo aurretik, Hor Nonbait, The Impresentables eta Dogma 00 taldeetan jo eban. Jo-

**Nik-en logoa.**

seba Esnaola Igorreko gitarrajoleak be Rotamator eta Marranzana taldeetan jo eban Nik-en hasi baino lehen eta Urko Santxez Dimako gitarrajoleak Aiko-Maiko, AKJ eta Ustelkeria taldeetan jo dau. Arantzazuko Ugaitz Lekue baterajolearentzat, Joseba Cid eta Iñigo Mintegi igorreko abeslariarentzat, barriz, hau lehenengo esperientzia da.

Eurak sortutako kantak zuzenean
Taldek jotzen dituan kanta guz-

tiak taldeko partaideak sortutakoak dira. "Hor burruka txiki bat daukagu gure artean, beste talde batzuen kanten bersinorik egin ala ez. Momentuz, kontzertuak emoteko beste kanta daukaguz eta sormena falta ez jakun bitartean geureak jotzen jarraituko dogu" dino Santxezek.

Eurenak jotzen eta arrakastaz. Izan be, kontzertu bakarra jo dabe, ez dabe ezer grabau oraindino eta daborduko sei kontzertu daukiez hitzartuta. "Hilaren 26an Diman Poxpolu Rock-en, joko dogu; martiaren 5ean, Kukuman Korrikaren jaian, Jaik taldeagaz; martiaren 12an, Lemoako Gaztetxean, Durangaldeko Gaztetxe guztien bileran; apirilaren 2an, Igorren barriro, Gazte Asanbladak antolatuten dauan jaialdian; apirilaren 9an, Murillo de Gallegon, Huescan Jaik taldeagaz eta oraindino konfirmatu barik ea 16an, 23an edo 30ean, izango dan Legazpin" dino gitarrajoleak.


Zuzenean jotea gustetan jakiela dinoe eta horregaitik eta hasi barriak diralako ez daukiela astirik izan ezer grabetako dinoe.

"Ez dogu grabau ezer, zuzenekoa prestetan egon garalako. Guri interesetan jakuna da zuzenekoak emotea, ondo pasetea eta astegoiak musika egiten eta jotzen pasetea". Dana dala, zeozer grabau bezain laster, Tuenti eta Facebooken eskegitoko asmoa daukie.

**Urko Santxez.****Edade guztietako publikoa**

Kanta guztiak euskeraz egin dabez eta edade guztietako publikoa daukiela dinoe "14 urtetik 58 urtera. Neskak zein mutilak, gazteak zein helduagoak".

Jente guzti honentzat, uda osoa zuzenean jotzen emon gura dabe Nik taldekoak.

**Joseba Esnaola.****Patxi Iza.****Joseba Cid.****Ugaitz Lekue.****Iñigo Mintegi.**

IKASKETA BIAJEA

Amets baten kronikea

Institutuko ikasleak

Badira asteak Arratia Institutuko bigarren batxilergoko ikasleok egoera hau imajinetan daroagula. Bista atzera botata eta kostau jakun guztian pentsautu, ziur gagoz egun horretan sentiduko dogunak aurreko guztia ahaztuten lagunduko deuskula.

Abenduak 5: Igorreko Ziklo-krosa. Ander Gorospe eta Arratiako Ziklista Elkartekoen laguntzeagaz, zartena eta lapikoa hartuta han agertu ginan ikasbidairako dirua batuteko asmoagaz.

Pintxoak, txokolate eta salda be-roa... egin eban egun eskasagaz konbinazio ezin hobea!

Euria, haizea, hotza... Goiz guztia han emon ostean eta katarro itzela harrapautu, etxerantza! Nahiz eta diru asko atera ez izan, esperientzia

Aurrera! Subertea bananduteko asmoa bai... baina asmoan baino ez zan gelditu.

Konturatu barik, urtila be ganera bota jakun eta zeozer ahaztuten genduan...

Kamiseta! Arineketan marrazkilarri baten hasi ginan eta Emma Aguilar eta Ainhoa Mendia ikasleak liburu eta koadernoak alde batera itxita, denporatu batez ekin eutsien gure kamiseten diseinuari. Atoan Gasteizera, 40 kilometro inguru eta kaja pilo batez bueltea.

Azkenik, jaialdiaren eguna heldu

zan eta DBH 3. eta 4. mailakoak eta batxiler 1. mailakoak pintxoak saltzean lagundu euskuen. Rifakaz be diru apur bat ateratea lortu genduan. Hori bai, tokau jakiezanak gabon-otzara dotore pare batez egin eban etxerako bueltea.

Beste barik, eskerrak emon gura doguz gauzak erreztu deuskuezan lagunai eta lagundu deuskuezen guztioi. Ea Istanbuleko merkatuetatik zuontzako *souvenir*-en bat topetan dogun.

Segundoak kontetan hasita gagoz... Bagoaz Turkiara!

**Arratia Institutuko batxilergo bigarren mailako ikasleak.**

SAN BALENDIN

Zeanuriko Piedadeko artea zentimetro eta erdi hazi da

Erredakzioa

Gregorio Lejarreta maiordomoak neurtu eban Piedadeko ermitako artea zezeilaren 13an eta 178,5 cm.ko perimetroa daukala arteak ikusi eta liburuan jaso eban. Beraz, igaztik zentimetro eta erdi hazi da.

Daroren urtean maiordomoa Benito Manterola izango da eta honek jaso zituan liburua eta ermitako giltzak. Manterola izango da datorren urteko San Balendin jaia antolatzeke arduraduna, Lejarretaren erreleboa hartuz. Tradizio hau orain dala gitxi berreskuratzen dabe Zeanurin.

IRAKURLE KLUBA

Miren Agur Meabe Bedian



Miren Agur Meabe.

Erredakzinoa

Egile lekeitiarrak igaz argitaratu eban *Zazpi orduak* (Elkar, 2010) liburua komentauko dabe bertara hurbiltzen diranak hilaren 23an.

Bediako irakurle klubak hile birik behin antolatuten dauan

literatura tertuliako zezeileko saiora Miren Agur Meabe idazlea etorriko da. Ibilbide luzeko egilea dogu Meabe, batez be poesian (*Azalaren kodea*, 2000, Espainiako Kritika saria) eta gazte literaturan (*Urtebete itsasargian*, 2006, Euskadiko Literatura saria).

Urte askoan irakaskuntza eta literatura bateratu ditu; baina azken urteotan sormen lanetan ibili izan da buru belarri. Holan, igaz, hiru liburu argitaratu ebazan, *Errepidea* (Erein), *Bitsaren eskuak* (Susa) eta *Zazpi Orduak* (Elkar).

Azken liburu horren ganean berba egiteko hitzordua bada be, bere poesia lana komentetako aukerea be izango da antolatzaileak dinoenez. Saioa 19:00etan hasiko da, herriko liburutegian.

Bediako irakurle kluba

Bedian eta Arratian euskerazko irakurzaletasuna sustatuteko sortu zan proiektu hau, igaz, Udalaren ekimenez. Geroztik, hile birik behin pasa da euskal idazleren bat bere azken lanaren ganean berba egiteko, eta bertaratutako jentegaz batera literaturaz berba egiteko.

Tertuliak eguaztenez izaten dira, 19:00etan, Bediako liburutegian. Ganera, saioan bertan komentetan da klubaren hurrengo saiorako liburua eta eguna.

Euskal literaturazaleak ez daukie atxakiarik. Informazino gehiago Bediako Udalaren webgunean.

FASIOREN MENDEA

"Fasio"ren inguruko CD-DVD-liburua banatzen hasiko da Igorreko Udala

Erredakzinoa

2009an zehar, Bonifazio Arandia "Fasio" herriko soinujolearen inguruko hainbat ekitaldi burutu ziran bera omenduteko Igorren, bere jaiotzaren 100. urteurrena zala eta (1909an jaio eta 1988an hil zan). Erakusketea, mahai-ingurua, jantzaldia eta kontzertua antolatu ziran 2009ko udagoienean eta orain, musikariaren inguruko *Fasioren Mendea* izeneko CD-DVD-liburua argitaratu da. Lan hau Aiko taldeak burutu dau, Udala eta Foru Aldundia- ren laguntasunagaz, eta idatzizko testua Aingeru Berguicesena da. Datorren zezeilaren 17an hasiko dira banatzen doban igorreztaren artean. Berau jasoteko, Kultur Etxera hurreratu beharko dira herritarrek.

CD-DVD-liburua inguruko instituzino, eragile eta ikastetxeetan be bananduko da. Argitalpenak 80 orrialde daukaz eta CDan,

1985ean "Fasio"ri bere Mikeleko etxean egindako grabazinoa dago bilduta; bertan, filarmonikea jotzen eta barriketan entzun lei. DVDan, hiru dokumentu dagoz: lehenengo bietan filarmonikea jotzen ikusten da Igorreko soinularia; hirugarrenean 1988an Igorreko Udalak antolatutako omenaldia ikusi geinke. Antzeko proiektuak herriko ondarearen berreskurapenerako "sano garrantzitsuak" dirala adierazo dabe Udaletik.



Fasioren Mendea izeneko lana.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU


	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Gustuko, begiko. 2.- Masa. Txarra ez dana. 3.- Letra bat. Arlo, solo. 4.- Marokoko jaia. Jatorria adierazoten dau. 5.- Oker. 6.- Behin eta barriro, bihotzaren taupadak. Greziako mitologian, Urano eta Gearen alaba. 7.- Garau euki-neurria. Sufrea. 8.- Biblian, Abrahamen iloba. Nondik atzizkia. 9.- Adiskidea.

GOITIK BEHERA

- 1.- Altuago dagoan lekura. Birritan, berbaldi etenbakoa. 2.- Euskera zaharrean, txakur. Gizonezkoen izena. 3.- Urtu diran metalez piezak egiteko prozedurea. 4.- Oxigenoa. Bokala. Letra bat. Konsonante bat. Letra bat. 5.- Ohartu. 6.- Ondasun. Indioaren sinboloa. 7.- Suitzako ibaia. Azpilea.



Topau munduko zazpi txanpon mota.

A	S	T	M	O	R	E	K	A	O
R	T	I	A	N	O	D	E	T	M
K	A	F	R	A	N	K	O	A	E
O	B	E	K	R	O	M	R	U	G
T	E	S	O	R	A	K	I	B	E
X	S	U	A	A	T	O	H	A	Z
I	K	A	R	L	O	T	A	R	O
L	U	G	A	O	B	E	T	A	D
O	D	O	L	D	A	N	E	A	K
M	O	K	A	D	U	R	N	I	G
A	A	S	K	O	T	I	N	G	A
Z	O	R	E	N	R	O	E	A	F
E	T	E	A	O	S	E	P	J	U
J	A	B	L	E	Z	T	E	T	N
A	S	F	O	L	U	B	E	A	R

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Axular
herriko taberna
Euskal Presnak etxera
Aginte lehend. 4. beheko igone
Tel: 94 673 70 52

Umeen moda 0-20 urte
• Babeli • Ray • Aranda
• AKR • Quisber • Arandigo
• Gaudelo • Leiz • Hassan
sein
LEHENDAKARI AGURE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

AGENDEA

ZEZELA**AREATZA**

Bainueteko harreran Jon Artetxe areatzairearen koadro erakusketea.

Laminebe Gazteak martiaren 12rako antolatutako sagardotegirako urteerara izena emoteko epea martiaren 5ean amaitzen da, emon izena Maitane Campo edo Mikel Amurizari.

IGORRE

28ra arte erakusketea *Lan grafikoa 70eko hamarkadan* Kultur Etxean.

ZEZELAK 17**LEMOA**

17:30etik 19:30era, barre-terapia tailerra jubilatuen eteko 1. solairuan.

18:30ean, Haur eta Gazteen X. Ipuin Lehiaketaren sariak. Txoborro magoa. Ludoteketan.

ZEZELAK 18**BEDIA**

18:00etan, 20ra arte, urteerea eskiatzera Baqueira Beretara. Udakete ondoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldea, zezelaren 20ra arte mendiko eskia.

ZEZELAK 19**AREATZA**

09:00etan, parkebetik mendik ibilbidea inguruko auzuneetara Areatza-Lauzain-Urbe-Areatza.

DIMA

11:00etan eta 16:00etan Arratia-Nerbioi txapelketaren finalak.

LEMOA

22:00etan kontzertua. Rat-zinger eta Macarrada taldeak Karbie Gaztebean.

ZEZELAK 20**IGORRE**

09:30ean urteerea Larraiganera bixi-buruntzi egiteko. Izen emotea 19ra arte kiroldegian, 5 euro. Moboganak antolatuta.

13:00etan Gernikako Akordioaren Arratia mailako aurkezpena Kultur Etxean.

17:00etan, umeentzako zinea *Megamind*.

**Ezker-eskuma antzezlan 19an Igorren 20:00etan**

Loli Astoreka eta Iñake Irastorzaren antzezlari honetan Rosa eta Sara dira protagonistak eta bokatza bere etxean bizi da, bere munduan, beren egunerokotasunak dituan arazoakaz burrukan. Kontu bakar batek alkatzen ditu, ostera, biak solairu berean bizi dirala, ezker-eskoia. Eta nahiz eta alkarregaz zer ikusirik ez izan, alkarren konpania eta laguntasuna ezinbestekoa da eguneko burrukan aurrera egiteko. Rosa etxe-koandre porrokatu prototipikoa da, bere bazkari eta janariak ditu berbaigai bakarrak. Senar isil eta anonimoa dauka, hutsaren parekoa. Sara, barriz, bakarrik bizi dan emakumea da, etxetik kanpo lan aspergarria daukana. Txitean-pitean interneten sartzea beste denporapasarik ez daukana.

Kalidateko antzerkia, goi mailako aktoreak antzezle, "bakardadeari, adiskidetasunari eta bizitzari buruzko gogoeta bat egitea da gure helburua, kantuakaz, mozorroakaz jolastuko dogu eta ezkutuko sekreturen bateri atek zabalduko deusaguz" dinoe aktoreak. Hori dana, umoreagaz.

19:30ean, zinea *Tres metros sobre el cielo*.

17:30etik 20:00etara jantzialdia Kultur Etxean.

ZEZELAK 23**BEDIA**

19:00etan, Irakurle Klubean Miren Agur Meabek *Zazpi orduak* liburuen ganean berba egingo dau.

ZEZELAK 24**BEDIA**

17:00etatik 19:00etara, tailerra: jolasa "hirutan hiru".

LEMOA

17:30etik 19:30era, barre-terapia tailerra jubilatuen eteko 1. solairuan.

ZEZELAK 25**DIMA**

Djak gaztebean Poxpolu Rocken.

IGORRE

19:30ean, Eberatek antolatutako presoen aldeko kontzertuzinoa.

ZEZELAK 26**BEDIA**

14:00etan, kantu bazkaria frontoian.

DIMA

14:30etik aurrera Poxpolu Rock.

IGORRE

18:30ean, *Robot Maitea* umeentzako antzerkia. 22:00etan, zinea *La llave de Sara* Kultur Etxean.

ZEZELAK 27**AREATZA**

Kanporamartxo Upora.

BEDIA

Kanporamartxo. Murgia. Umeen urteera.

IGORRE

17:30ean, umeentzako zinea *Los viajes de Gulliver*. 19:30ean, zinea *La llave de Sara*.

17:30etik 20:00etara jantzialdia Kultur Etxean.

ZEANURI

16:30ean plazaatik urten eta bixi-buruntzia San Lorenzo ermitan.

ZEZELAK 28**ARTEA**

19:00etan, presoen aldeko kontzertuzinoa.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALTZEAN DOT**

Egurrezko sehaska barri-baria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, kolboia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

LAN ESKEINTZA**BEHAR BILA**

Goizetan behar egiteko prest nago. interesatuak deitu 676 370 409 (Maite).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Klase partikularrak emoten dodaz maila guztietan, matematikea, fisikea, marrazketa teknikoak, eta abar. Ikasketa teknikoak egitera doazen ikasleak prestetan dodaz. Deitu 605 746 487 telefonora.

ESTETIZISTEA BEHAR DA

Igorreko zentro estetiko baterako estetizista behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

TABERNARI BILA

Asteburuetan kamareru lez lan egiteko persona euskalduna behar dogu. Interesdunak apuntatu Axular Kultur Elkarteko tabernan edo deitu 94 673 70 92 telefonora.

DANETARIK**SENEGAL BIZIKLETAN**

Aste Santuan apirilaren 16tik 31ra bizikletaz Senegal ezagutu gura? Egutero 45 km inguru. Prezioa: 950€ + hegazkina. Informazio gehiago xauenbidaia@gmail.com. Erdu!

EROSI**EROSTEN DOT**

Urreak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ezker-eskuma* antzezlenerako.

Naia Rodriguez (Zeanuri)
Nere Barrenetxea (Lemoa)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera zezeilaren 26 edo 27an filma ikusteko.

Begoña Pedrosa (Areatza)
Mari Carmen Etxebarria (Igorre)

Igorreko Kultur Etxeak
Lasarte Aretoa



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.



Institutukoak ingurumena jagoten

Eskolako Agenda 21 proiektua, ikastetxean bertan eta inguruan iraunkortasunaren eta kalidadearen alde hezkuntza komunitadeak, Udalagaz batera aurrera eroaten dauan konpromiso eta ekintza plan bat da.

Maialen Etxebarria, Maite Martin, Oihana Iturbe, Leire Lozano, Garazi Undurraga eta Mariane Gartzia

Gure Institutuak, orain dala 3 urte, proiektu honetan parte hartutea ebatzi eban eta hortik aurrera gure esku egon dan guztia egiten ibili gara, ikasle zein irakasleok, inguru jagoteko ahal dogun neurrian.

Ekimen edo proiektu honeguz, ikasleok, ingurumen egoerea ulertutea eta aldi berean garapen jasangarriagaz bat datorren kudeaketea (ikastetxearena eta inguruarena) bultzatzea gura izan da.

Hasiera baten proiektu honetan apuntatu ginan, gehienbat, zer egingo genduan jakiteko kuriosidadeagaz. Denporea pasau ahala, konturatuten hasi ginan benetan beharrezkoa dala eta urtero lortu dogu batenbat gehia-

go apuntetea, erakutsi dogulako jentea behar dala hau aurrera eroateko. Gure bigarren urtean hasi zan Institutuko jente gehiago izena emoten. Ez dakigu seguru zerk bultzatuta animau dan jentea, baina taldekoak asko ekin genduan ikasleak animetan.

Urteotan hainbat ekintza egin doguz, bai taldeko hartu-emonak, bai ingurumena hobetuteko. Esaterako, urteera batzuk be egin doguz: Gorbeiera, Busturiako Madariaga Dorretxea, Lekeitiora...

Institutuan bertan be gauza asko egin doguz: inguruetak garbitasuna eta gela barruetako garbitasuna bultzatu doguz gela garbienari sari bat emonaz, berbarako.

Zaborra ahalik eta gehien birziklatzen ahalegindu gara, baita papela, plastikoa, pilak (honeek batzeako kanpaina egin dogu aurten bigarrenez)...

Urtero Gabonetako jaialdian taldeko kide batzuk "Azoka berdea" antolatuten dogu. Garaian garaiko produktuak eta bertan bertakoak bultzatuteko, inportazioa sahiestuteko helburuagaz.

Kutsadurearen inguruan be egin doguz ekintza batzuk. Horreetako bat, autorik bako eguna (Udalak antolatuta) ospatutea izan da. Izan be kutsadurak asko kezkatzen gaitu

Institutuko talde batzuk oinez, bizikletaz eta patinez ibilbide bat egin genduan Igorren zehar. Egun horretan eskolako umeak be geugaz parte hartu eben.

Igaz eta aurten be Udal Foroan hartu dau parte gure taldeak eskolako beste hainbat umegaz batera eta bertan ingurugiroagazko gure helburuak azaldu

"Ingurumen egoerea ulertutea eta era berean garapen jasangarriagaz bat datorren kudeaketea bultzatu gura dogu"



Arratia Institutuko ikasleak A21eko urteera baten.

genduzan bai alkatearen eta bai zinegotzien aurrean. Egiten doguna azalduteaz gan, eskaerak egiteko aukerea be izan genduan. Horregaitik, bai eskolako ikasleak bai guk prestatutako hainbat eskaera azaldu geuntsezan alkateari; hori bai, danak Agenda 21 ekimenagaz lotutakoak. Institutuko patioan iturri bat eta zaborra bereizteko zakarrontziak gura genduzala esan genduan. Baita zubiaren beste aldean zakarron-

tzi gehiago ipintea be. Badakigu eta, gazteok han botaten doguzan txarrikeriak dirala eta, erreka asko zikintzen dana.

Azkenik energia aurreztuteko gure konpromisoa betetea lortu genduan hainbat aldatetari esker: berogailuen energia kontrolau genduan lehioak zarratuz...

Honeguz jentea animau gura dogu talde honetan parte hartu daian esperientzia ona eta polita dalako ingurumena jagotea.

www.begitu.org
Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

mugarri
diseinu integrala

proiektuak eta diseinua
obrak eta erreformak
dekorazioa eta altzariak
obra zuzendaritza
kudeaketa integrala

Garbe, 2 • 48140 IGORRE
telefono/faxa 94 631 51 03
mugarri@mugarriarkitektura.com
www.mugarriarkitektura.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgintza zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriales, Pol. 07
Tel/Fax 94 673 62 76
89 736 516
48140 Igoerre Baxak

MAIDER YABAR

"Hegan egiteko ez da hegorik behar, ezta takoirik ibilteko"

Martiaren 12an, arrastiko 20:00etan Igorreko Kultur Etxean Maider Yabarrek eskeiniko dau *Takoiak airean* zirku-antzerki ikuskizuna. Ezaguna dogu Yabar Arratian, Igorren bizi da eta ez da gurean taularatzen dauan lehenengo ikuskizuna. Igorren 2007an Azulkillas konpainiagaz Palentziako kale antzerki jaialdian lehen saria eskuratu eban *Historias de un baul* ikusteko aukerea izan genduan. Ganera, Igorreko Kultur Etxean zirku ikastaroak emon ditu. Ttanttaka edo Vaiven konpainiakaz ibilbide luzea egin ostea, Maider Yabarrek Azulkillas Zirku eta Kale Antzerkiko konpainia sortu eban eta sei urtetan haregaz jardun dau. Orain, bakarkako lanari ekin deutso antzerkia akrobaziakaz, pantomimeagaz eta poesiagaz buztartuz. *Takoiak airean*, Yabarren Buruz Behera konpainiaren lehen sormen lana da.

Erredakzinoa**Arratian zirku eskolak emoten dozuz Igorreko Kultur Etxean, ezta?**

Aurten ez dot umeentzako ikastarorik egin momentu honetan sormen lanetan buru belari nabil eta. Alde batetik *Takoiak airean* eta *Ilargiaren bi aldeak* bestetik Hika konpainiagaz.

Zer da irakasten dozuna eta zein da zure ikaslearen perfila?

Akrobaziak egiten genduzan barikuro Igorreko umeakaz. Ume eta helduakaz egin izan dodaz ikastaroak baina Igorren egindakoak umeakaz bakarrik izan dira.

Noiz eta zergaitik sortu da Buruz Behera Zirku eta Antzerki konpainia?

Buruz Behera konpainia 2010eko abuztuan sortu neban. Sei urtetan Azulkillas konpainiagaz jardun ostean, bakarka jarduteko eta abentura barri honeri ekiteko gogoa neukan. Sormeneko lan personala egiteko, hain zuzen be.

Zer da Takoiak airean? Zelan sortu zan?

Zirkua, antzerkia, pantomimea eta poesia nahasten dituan ikuskizun bat da. Idea nagusia zirkuko numeroak ziran trapezioa eta oihalak baina horrez gan, zeozer kontau

gura neban, personaje bat sortu eta haren biaketa kontau eta holan sortu neban Klaudia personajea.

Nor da Klaudia?

Klaudia eguenero parkera joaten dan andra bat da. Han, bere irudimenak asmatutako hitzordu bat dauka. Itxaropentsu joan arren, badaki bakarrik bueltauko dala etxera. Baina eguen baten, etxoten dagoa, trapezioak eta aireko oihalak irudimena motibatu eta zentzumenak esnatuko deusiez. Sentimentu barri honeek kolokan ipiniko ditu bere sinesmen zaharrak eta uko egingo deutse alferrikako gauzai. Konturatuko da ez dala hegorik behar hegan egiteko, ezta takoirik ibilteko be.

Idea zeurea da, lanaren zirku sorkuntzea eta zuzendaritza... eta ikuskizuna be zeuk egiten dozu. Azaldu apur bat egin dozun lana.

Takoiak Airean ikuskizuna sortzeako Jasone Albaren zuzendaritza ezinbestekoa izan da. Biok hasi ginan beharrian alkarregaz eta sorkuntza hau aurrera eroan dogu.

Estreinaldia da Igorrekoa ala beste nonon egin dozu?

Bai. Igorren izango da estreinaldia. Dana dala, publikoaren gustukoa dana badakit. Publikoaren aurrean egin dodaz ensaioak eta oso ondo erantzun dau. Lan ederra egin do-

gula esan deuste.

Dana dala, zeure lana izan arren, hau martxan ipinteko talde lana beharko da. Nortzuk hartzean dozue parte ikuskizun honetan?

Eszenatokian bakarrik neu nago baina hona hemen fitxa artistikoa. Jatorizko idea eta zirku sorkuntzea eta zuzendaritza neureak dira. Eszenaratzea eta zuzendaritza Jasone Albaren kargu egon da, euskerazko bersinoa Julia Marinek egin dau; testua Dario Fo eta Franca Rame-rena da; jantziak Leirekhi eta Vanessa Pendiendo del Hilo-rena; musika edizinoa Jota Phünkek egin dau. Testu zuzendariak Fermin Sanles eta Julia Marin izan dira, argazkiak Koldo Balentziagak egin ditu, argien diseinua Xabier Lozanok, diseinu grafikoa eta bideoa Bruno Ventolak eta teknikaria

Takoiak airean

ikuskizunak zirkua, antzerkia, pantomimea eta poesia buztartzen ditu



Fernando Salcedo da.

Martiaren 12an gaztelaniaz izango da emonaldia, baina euskerazko bersinoa prestetan zabizie, noizko euskeraz?

Euskerazko bersinoa prestetan gabiz. Gauzea da beste sormen lan bategaz hasi nazala *Ilargiaren bi aldeak* HIKA konpainiagaz eta pentsetan dot bagilerako egongo dala.

Testua Dario Fo eta Franca Rame-rena da. Zergaitik aukeratu zenuen antzerki egile honeen testua?

Egia esan testu hau aspilditik neukan gordeta baina ez nekian noizko eta ikuskizuna sortzean gengoza-

nean Jasonek eskatu eustan zerbait kontetako trapeziorik eta hasi nintzan bila eta gogoratu nintzan 8 *bakarrizketaz*. Bertan agertzen da neuk aukeratutako testua.

Aspaldi nire lagun batek erabilitako testua da, berari entzun neustan baina beste kontestu baten antzeztan eban.

Testua guztiz feministea da eta andrak beren gurariak betetzera bultzatzen ditu eta gagozan sasoian interesgarria iruditzen jata holango gauzak aitatzea.

Nori zuzenduta dago?

Hasiera baten helduentzat zuzenduta egoan baina probatu gura dot 10 urtetik gorakoakaz.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:
 35€

 55€

 75€


Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea